



UDALA

Proposamen onena aukeratu nahi duenak, Biterin dauka zita gaur

2015eko Udal Aurrekontuetan parte hartzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Jasotako proposamenak aztertu ondoren, lehentasunak ezarriko dira datozen egunotan, bilera irekietan. Gaur 18:00etan, Biterin, erabakiko da zein diren garrantzitsuenak, kultura, eskola, jaiak, kirola... gaitan. Udalak gonbita luzatzen die herritar guztiei, parte har dezaten. Gainera, haurtzaindegi zerbitzua izango da. ||

Kultura eta turismo batzordea, gaur

Kultura eta Turismo ohiko batzorde bilera deitu du gaur Hernaniko Udalak, 18:00etan. 2015eko Inauterietako kartel lehiaketaren oinarriak, eta Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmena eztabaidatu dituzte, besteak beste. ||

Udal Euskaltegian apuntatzeko epea, ostiralera arte

Hernaniko Udal Euskaltegian apuntatzeko, aukera badago oraindik. Talde batzuetan hainbat plaza hutsik daude, eta berriro zabaldu dute matrikula epea, ostiralera arte. ||

KANTUZ

Etzi azken eguna, gitarra ikastaroan izena emateko

Gitarra jotzen ikasteko aukera dago Kantuz elkartearen, gazte eta helduentzat. Izena emateko azken eguna etzi da: udaletxe-ko Hezkuntza sailean (1. pisua) edo 943 33 70 41. ||

BITERI

Hitzaldia bihar, zorientasuna praktikatzearaz

Hitzaldi praktikoa izango da gaur Biterin, zorientasuna praktikatzeari buruz: 19:30etan euskaraz, 20:30etan gaztelez. Debalde izango da. ||

AMHER

Extranjeria legeari buruzko azalpenak emango ditu gaur Mikel Mazkiaranek

Interesa duten guztiak gonbidatu ditu Amher elkarteak gaurko hitzaldira. Biteri kultur etxean izango da, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

KANPOTIK etorritako herritarrei zertan eragiten die Extranjeria legeak? Azalpen guztiak eman nahian, hitzaldia antolatu du gaur iluntzean Amher elkarteak. Mikel Mazkiaranek emango

du hitzaldia, SOS Arrazkeriako abokatua denak; Biterin izango da, 19:00etan.

Eragina, egunerokoan

Atzerritar batek egunerokoan nabaritu dezake Extranjeria

Legearen eragina, eta egoera bakoitzari aurre nola egin azalduko du gaur, Mazkiaranek: laneko eta erresindetziako baimenak, paperak berritzea, familia berriz ere elkartzea, ikasketak egiteko

egonaldiak, lana eta arraigo sozialaren erregulazioa, pertsona atzerritarren kontratazioa, nazionalitatea, pertsona komunitarioen eta honen familiarren arautegia, isunak, kanporatzeak... ||

UDALA

Harrera eta erregistroa sarreran, berriz ere

Udalaren asmoa da Herritarren Harrera Zerbitzua bakarria izatea eta Udaleko sarreran egotea. Momentuz, harrera-erregistro lanak bakarrik egingo dituzte bertan.

LEIHATILA bakarria nahi du jarri Udalak, herritarrek egin behar dituzten tramite guztiak bertan egin ahal izateko. Herritarren Harrera Zerbitzua izena jarri diote, eta berehala izango da martxan.

Azken hilabeteetan obretan aritu dira Udalean, sarrera egokitu nahian. Obrak bukatu dituzte, eta beraz, atzotik sarreran egiten dira harrera eta erregistro tramiteak. Udaletik jakinarazi dutenez, gutxi falta bada ere, oraindik ez da eskainiko tramite guztiak bertatik egiteko aukera.

Orain arteko ordutegi bera

Ordutegia orain arteko bera izango da: astez, 09:00-13:00 eta 15:00-20:00. Eta hilabeteko aurreneko eta hirugarren larunbatean, 10:00-13:00. ||



Harrera-erregistro berria martxan dago honezkero, Hernaniko udaletxean.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

AMAI
ARRANDEGIA

ARRANDEGIA
ITSASBIA
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Laino asko egongo dira zeruan, baina gero eta zaparrada gutxiago botako ditu. Ostareak ere zabaldu daitezke, arratsalde partean. Min.16° / Max.21°

BIHAR Hobera egingo du eguraldiak. Lainoak desagertuz joango dira, eta ostareak gero eta haundiagoak izango dira. Min.13° / Max.21°

HERNANI WUKROREKIN

Bihar egingo diete harrera udaletxean, Wukroko gazteei

Elkartasun jardunaldiak antolatu ditu Hernani Wukrorekin GKEk, irailaren 24tik 29ra. Angel Olan, Wukroko 11 gaztetxo eta 3 monitore etorriko dira.

BIHAR iritsiko dira Wukroko gazteak Hernanira, eta ongi etorria egingo diete udaletxean, iluntzeko 20:00etan. Guztira, 15 kideko taldea dator Wukrotik: Angel Olan misiolaria, 11 gaztetxo eta 3 monitore.

Hernanira iritsi aurretik, Madrilen izan zen taldea. Bertan, kirol munduko sari bat jaso zuten joan den astean. Ondoren, Bartzelonan ere izan dira, eta ibilbidea egin dute, Wukrori laguntzen dioten herriak bisitatuz. Bihar

iritsiko dira bidearen helmugara, Hernanira.

Elkartasun jardunaldiak, bihartik astelehenera

Hernani Wukrorekin GKEk antolatuta, elkartasun jardunaldiak ospatuko dira, irailaren 24tik 29ra. Hain justu, udaletxeko harrera izango da aurreneko ekintza. Ostegunean, berriz, hitzaldia emango du Olanek, 19:00etan Biterin.

Larunbatekoa, kirol eguna izango da, elkartasunaren-

tzat. Antziolako pistetan, hainbat proba egingo dituzte, Wukroko eta Hernaniko gaztetxoek. Eta arratsaldean, Ereñotzuko frontoian ariko dira, palan jokatzeko.

Igandean, meza emango du Olanek Agustinetan, eta elkartasun bazkaria egingo dute. Txartelak salgai, Migel Lujanbio, Iruretagoiena eta ostegunetako ferian, 22 euroan. Jardunaldiak itxeko, astelehena Hernani Institutuan pasako dute, Wukroko gazteek. ||

BITERI PEIO VILLALBAREN ARGAZKI ERAKUSKETA



Hernaniko argazki zaharrak koloreztatu ditu Peio Villalbak. Bere lanak ikusgai daude Biterin.

«Bazen garaia, Hernaniko argazki zaharrak koloreztatze»

Hernaniko garai bateko argazkiak berreskuratu, eta koloreztatu egin ditu Peio Villalbak. Biterin daude ikusgai eta salgai, irailaren 30era arte.

GARAI bateko Hernani gogora ekarri nahi duenak, aukera paregabea dauka Biterin, egun hauetan. Herriko argazki zaharrak daude ikusgai eta salgai, irailaren 30era bitartean: «Artxibotik, Hernaniko garai bateko argazkiak hartu ditut, eta 20-30eko hamarkadetan bezala koloreztatu ditut», dio Peio Villalba artistak.

Izan ere, konturatu zen Hernaniko argazki zaharrik ez zegoela koloreztatuta: «Donostiako asko, baina Hernani-

18garren eta 19garren mendeko Hernaniko argazkiak ikusteko aukera dago Biterin, 18:00etatik 20:00etara

korik ez nuen aurkitu. Eta bazen garaia, bertako argazki zaharrak koloreztatze, 1.000 urte bete dituela aprobetxatuz». Horretarako, teknika modernoak erabili ditu: «garai

batean, pintzelaz ematen zitzaizkien kolorea argazkiei; nik tresna digitalak erabili ditut. Baina bi moduetara, lortzen den lana antzekoa da».

Argazkiak salgai, 60 euroan
 18garren mendeko bukaerakoak eta 19garrenaren hasierakoak dira argazkiak. Biteriko erakusketa aretoan daude ikusgai, 18:00etatik 20:00etara. Gainera, argazkiak erosteko aukera ere badago. Prezioa, 60 euro inguru. ||

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

AMAIA GARCIA



Opera eta inmigrazioa

Giacomo Casanovaren inguruko milaka film egin dira zinemaren historian. Michal Sturmiger zuzendaria *Mémoires de Casanova* liburuan oinarritu da John Malkovichek antzeztutako pelikula egiteko. Mozarten eta Lorenzo da Ponteren ariak erabili ditu opera zinemara eramateko. Opera

zaleentzat aparta da, hain zale ez direnentzat agian luzeegia.

Inmigrazioaren gaia jorratzen du *Haemoo* pelikula, Txinatik Koreara joan nahi duten pertsonena zehazki. Istorio gogor baina erreala dakar Shim Sung-boren filmak. Benetan gomen-dagarria. ●



67KO KINTOA

Kintoko bazkaria igandean, 67koek

67ko kintoko ikasleek bazkaria egingo dute igandean, Portu kaleko Pedro Mari tabernan. Izena emateko, deitu 688 666 956 (Pablo) edo 655 712 498 (Bernar) telefonora. Goiko argazkian, ezkereskuin eta goitik behera: Querejeta, Osar, Gorrotategui, Duram, Castrillo, Cabezas, Ugalde, Gonzalez; Hernandez, Aldave, Gonzalez, Imaz, Garcia, Izaguirre, Pavon, Gomez, Liceaga, Parra, Sanchez; Alonso, Ochotorena, Portillo, Ochandorena; Arozamena, Peña, Amasene, Flores, Valiente. ||

TAILERRA

Haurdunaldiaz dena jakiteko tailerra

Haurdunaldia bizi eta partekatze, tailerra emango dute Biterin, urriaren 8an hasi eta otsailera bitartean. Bertan, haurdunaldiaz jakin beharreko guztia ezagutzeko aukera izango dute, interesatuek. Saioak asteazkenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea irailaren 26an bukatuko da. Apuntatzeko, idatzi irantzuj@hernani.net edo maialen-a@hernani.net helbidera; deitu 943 33 70 17 telefonora; edo pasa Plaza Feministatik (Aristizabal 7, behe). Prezioa 30 eurokoa da. ||

ERRUGBIA

Mariskadaren zozketan saritua: 1.126

Errugbiko mariskadaren zozketan, honakoa izan da zenbaki saritua: 1.126. Irabazleak, telefonoz deitu behar du: 657 795 822. ||

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrik eskaintzen ditut: matematika, kimika, fisika eta biologia. Unibertsitateko ikaslea naiz. Batxilergoko 1 mailatik behera, edozein mailatan. Deitu: 650 308 928

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)